

FUNTSEZKO ELKARTEA

Funtsezko elkarteei dagokienez, gure aplikazioa sortzeko beharrezkoak izango dira ondorengo aliantzak.

Lehenik eta behin, bazkideak lortu ahal izateko, institutoan zehar kartelak jarriko ditugu. Bestalde, ikasleek aplikazioan lehen aldiz sartzean, hau da, erregistratu eta izena ematean, ondorengo hilabeteetan baino diru kopuru handiagoa ordainduko dute, eta, trukean, mota askotako abantailak izango dituztela adieraziko diegu. Hau, proiekturako likidezia lortzeko egingo genuke.

Bestalde, hornitzaileak topatu beharko genituzke. Alde batetik, lan egiteko bulego bat beharko genuke. Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitatearekin negoziatuko genuke. Negoziazio horren bidez, unibertsitateak proiektuan irakasle bezala parte hartuko duten ikasleei, ordenagailuak eta lan egiteko tokiak utziko zizkien, eta trukean aplikazioak unibertsitatea sustatuko zuen bere zerbitzuetan.

Unibertsitatean kartelak ipiniko genituzke. Gainera, enpresa batzuk beharko ditugu gure bulegoan wifi arina eta ordenagailu potenteak lortu ahal izateko. Hori dela eta, wifia eta ordenagailuak uzten badizkigute, trukean iragartuko genituzke aplikazioan. Azkenen, aplikazioaren erabiltzaileak bezero potentzialak dira. Gaur egun, ikasteko ia beharrezkoa delako ordenagailu bat edukitzea.

